SILICIE – Zerga Berezien Kontabilitate Liburuak Berehala Hornitzeko Sistema

PROBA ESPARRUA

# Ogasun eta Finantza Saila

# Bizkaiko Foru Aldundia

11/11/2019

| | | |
|---|---|---|
| **Egilea:** Foru Ogasuna | **Data:** 2019/11/11 | **Bertsioa:** 1.0 |

| Ediz. | Berrik. | Data | Deskribapena | G(*) | Orrialdeak |
|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 0 | 2019/11/11 | Hasierako bertsioa | | 33 |
| | | | | | |

**(*) Ekintza: G= Gehitu; O= Ordeztu**

# ÍNDICE

**ÍNDICE** .......... **3**

**1 SARRERA** .......... **4**

**2 PROBA ESPARRUAREN KONTSIDERAZIOAK** .......... **4**

2.1 Proba esparruaren URLak. .......... 4

2.1 Ziurtagirien erabilera proba esparruan .......... 5

**3 PROBA ESPARRUKO KONTSULTA ETA GORABEHERETARAKO ARRETA 6**

# 1 SARRERA

Bizkaiko Foru Aldundiak proba esparru bat prestatuko du, hala nahi duten enpresek beren sistema teknologikoak prestatu ditzaten 2020ko urtarrileko SILICIEren (Zerga Berezien Kontabilitate Liburuak Berehala Hornitzeko Sistema) ezarpenera begira.

# 2 PROBA ESPARRUAREN KONTSIDERAZIOAK

Proba esparrua dokumentu hau argitaratzen denetik aurrera egongo da eskuragarri, eta momentuz ez zaio itxiera-datarik aurreikusi.

Proba esparru honetarako ez da aldez aurretik inskribatu behar, eta nahi beste proba egin ahal izango dira.

Esparru honetan egindako bidalketak ez dira lotesleak, ez dute eraginik zergetan eta ez dira inola ere errealtzat joko.

## 2.1 Proba esparruaren URLak.

Proba esparruko web zerbitzuen URLak honako hauek dira:

| Zerbitzua | URL |
|---|---|
| Alkoholaren eta edari alkoholdunen establezimenduen kontabilitateko idazpeneko alta | https://pruapps.bizkaia.eus/IGIE000M/IESA1V1Service |
| Tabakoa eta alkohola barne hartzen dituzten establezimenduen kontabilitateko idazpeneko alta | https://pruapps.bizkaia.eus/IGIE000M/IESM1V1Service |
| Hidrokarburoen gaineko zergaren establezimenduen kontabilitateko idazpeneko alta | https://pruapps.bizkaia.eus/IGIE000M/IESH1V1Service |
| Tabako-laboreen gaineko zergaren establezimenduen kontabilitateko idazpeneko alta | https://pruapps.bizkaia.eus/IGIE000M/IEST1V1Service |
| Alkoholaren eta edari alkoholdunen establezimenduen idazpenen kontsulta | https://pruapps.bizkaia.eus/IGIE000M/IESA2V1Service |
| Tabakoa eta alkohola barne hartzen dituzten establezimenduen kontabilitateko idazpenen kontsulta | https://pruapps.bizkaia.eus/IGIE000M/IESM2V1Service |
| Hidrokarburoen gaineko zergaren establezimenduen kontabilitateko idazpenen kontsulta | https://pruapps.bizkaia.eus/IGIE000M/IESH2V1Service |
| Tabako-laboreen gaineko zergaren | https://pruapps.bizkaia.eus/IGIE000M/IEST2V1Service |

| | |
|---|---|
| establezimenduen kontabilitatekoidazpenen kontsulta | |
| Kontabilitateko idazpena ezeztatzea | https://pruapps.bizkaia.eus/IGIE000M/IESX4V1Service |
| Izakinen saldoaren kontsulta | https://pruapps.bizkaia.eus/IGIE000M/IESX3V1Service |

## 2.1 Ziurtagirien erabilera proba esparruan

Proba esparruan erabili beharreko ziurtagiriak ekoizpenekoak izango dira, IZENPEren kasuan izan ezik. Kasu horretan proba ziurtagiriak erabili ahal izango dira.

Jarraian, establezimenduaren IFZren kasuan kontuan hartu beharreko kontsiderazioak zehazten dira:

IZENPEren ziurtagiriak (probazkoak) erabiltzen dituzten enpresentzat:

Bidalketa onartzeko, dokumentazio teknikoarekin bat etortzeaz gain, baldintza bakarra da goiburuan azaltzen den establezimenduaren IFZ EZ etortzea bat bidalketarako erabilitako ziurtagiri elektronikoaren IFZrekin (zehazki, 999999rekin hasten direnekin edo Q3890349H edo Q0199999D diren ziurtagiri elektronikoekin).

IZENPEkoak ez diren gainerako ziurtagirientzat:

Bidalketa onartzeko, dokumentazio teknikoarekin bat etortzeaz gain, baldintza bakarra da goiburuan azaltzen den establezimenduaren IFZ bat etortzea bidalketarako erabilitako ziurtagiri elektronikoaren IFZrekin.

# 3 PROBA ESPARRUKO KONTSULTA ETA GORABEHERETARAKO ARRETA

**Zergei buruzkoak:**

Telefono-zenbakia: **946 125 500**

Neguko ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 19:00etara.

Udako ordutegia (uztaila eta abuztua): Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

**Teknikoak (gorabehera informatikoak):**

Helbide elektronikoa: programak@bizkaia.eus (gomendatua).

Telefono-zenbakia: **901 100 666** (deiaren kostua erdi bana) o **94 608 3566.**

Bizkaia
lantik

Sabino Arana, 44
48013 BILBAO (Bizkaia)

Tel: (+34) 944 068 900
Fax: (+34) 944 068 800

e-mail: lantik@bizkaia.eus
http://lantik.bizkaia.eus

**ER-2023/2005**
El Diseño, el Desarrollo y el Mantenimiento de Aplicaciones Informáticas.
**ER-0739/2006**
La Compra de Bienes y Servicios y el Suministro e Instalación de Equipamiento Informático
para la Diputación Foral de Bizkaia.
**ER-0811/2008**
La Atención al Cliente.